

DESINFORMAZIOAREN KONTRA... HEZIKETA



Etapa: 12 -15 urte.



Zailtasun-maila: ertaina



2 kide



Denboralizazioa: 7 saio



Etiketak:

Albiste faltsuak (*fake news*), desinformazioa, hitzaldi/lantegia, aditu baten bisita

Jardueraren deskripzioa:

Informazioaren arloarekin lotutako hitzaldi-lantegia. Hitzaldi-lantegia Espainiako zentroan bertan edo bideokonferentziaz egingo da. Edonola ere, proiektuko gainerako kideekin partekatuko da.

Helburuak: (3 gehienez)

1. Desinformazioa zer den hobe ulertzea.
2. Desinformazioaren kontra borrokatzeko moduak ikastea.
3. Hitzaldi profesionaletan parte hartzen ikastea (oharrak hartu, galderen txanda...).

Gako gaitasunak eta zeharkako gaiak:

- Hizkuntza-komunikazioa

- Gaitasun digitala
- Gaitasun sozial eta zibikoak
- Komunikabideetarako heziketa
- Kontsumitzailearentzako (eta erabiltzailearentzako) heziketa

Curriculumeko edukiak:

- Ahozko ulermena eta adierazpena
- Konferentzia, hitzaldi edo lantegi baten laburpena eta sintesia



Inklusio-alderdiak:

Ikasle bakoitzaren ezaugarri indibidualak hartuko dira kontuan hitzaldia/lantegia antolatzerakoan, eta guztiek parte hartzeko aukera izango dutela ziurtatuko da.

Aurreikusitako produktuak/emaitzak:

Posterra, triptikoa, kontzeptu-mapa edo antzekoren bat - hitzaldi-lantegiaren laburpena, desinformazioari aurre egiteko ideien dekalogo batekin batera.

JARDUERAREN GARAPENA

1. urratsa

Espainiako ikastetxea harremanetan jarriko da [Maldita.es](https://www.maldita.es) edo antzeko beste erakunde batekin, taldearen ezaugarrietara hobekien egokitzen den hitzaldi-/lantegi-mota zehazteko. Maldita.es-en kasuan, kontaktua [galdetegi](https://www.maldita.es) honen bidez egingo da.

2. urratsa.- Aurrez aurreko zein bideokonferentzia formatuak konbinatuko dira; hau da, Espainiako ikastetxean aurrez aurre egingo da hitzaldia, baina kide den zentroak bideokonferentzia bidez parte hartuko du.

3. urratsa.- Hitzaldiarekin/lantegiarekin lotutako guztia zehaztu ondoren, proiektuko kide diren ikasle guztiekin lan egingo da, proiektuaren aprobetxamendua areagotzeko eta beharrezkotzat jotzen den informazioa emateko. Ikastaldeetan lan egingo da.



1. irudia- ikasgelan lan egiten

4. urratsa.- Aurrez aurreko hitzaldia grabatzeko eta ondoren gainerako kideekin partekatzeko baimena eskatuko da. Bideokonferentzia eginez gero, guztiek zuzenean parte hartuko dute.



2. irudia- aurrez aurreko hitzaldia



3. irudia- bideokonferentzia

Oharra: bideokonferentzia Twinspace-n programatuko da, baina B plan bat izatea komeni da, azken orduko arazo teknikoak egongo balira ere. Gainerako kideekin hitz egin daiteke eta beste plataforma bat adostu (Hangouts, Google meet, Jitsi, edo antzekoren bat).



Tutoriala: Nola [programatu bideokonferentzia bat](#) Twinspace-n:

5. urratsa.- Jarduera hori egin aurretik, proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetako irakasleek ikasleak nazioarteko taldeetan nola taldekatu adostuko dute. Talde bakoitzeko kideekin taula bat prestatu eta TwinSpace-n horretarako sortuko duten orrira igoko dute.

taldeak	1. lurrealdeko ikaslea	2. lurrealdeko ikaslea
1	xxxxxxx	yyyyyyyy
2		mmmm
3		



Tutoriala: TwinSpace-n [orria sortzea](#):

Support

HOME | PAGES | MATERIALS | FORUM | ONLINE MEETINGS

international teams

equipos internacionales

equipos	pais 1	pais 2
1	Manuel	Susan
2	Juan	Helen
3	Elena	Simon

8. irudia- Twinspace-ko bista

6. urratsa.- Orrialde horretan bertan edo jarduerako berariaz sortutako beste batean, TwinBoard bat sortuko dute; ezinbestekoa jarduera amaitzeko.

Contra la desinformación... educación

resumen charla-taller

Add item

triptico equipo 1
que es la
desinformación

Discuss

"Utiliza el foro para seguir hablando de este tema. Encontrarás un guión con algunas preguntas."

Go to discussion

4. irudia- TwinBoard

7. irudia.- Irakasleek foro bat irekiko dute jardueraren izenburu berarekin, eta eztabaida-hari bat sortuko dute nazioarteko talde bakoitzarentzat.



Tutoriala: Nola [sortu Foro bat](#) Twinspace-n:

8. urratsa.- 5., 6. eta 7. urratsak egin eta hitzaldi-lantegia gauzatu ondoren, ikasleek, nazioarteko taldeetan taldekatuta, lantegian joratu eta ikasitakoa komentatuko dute, eta beren komunitateari nola aurkeztu erabakiko dute (posterra, eskema, Kahoot edo antzeko galde-erantzunekin egindako jokoa, bideoa Flipgrid webgunean). TwinSpace-ko TwinBoard-en zein institutuko oholean (paperean) partekatuko da dena.



*Irakasleek prozesu osoa gainbegiratu eta aholkuak emango dituzte uneoro, baina jarduerak eskatzen duen sortzeko askatasuna emango diete ikasleei.



. TwinSpace-ko tresnak / kanpoko 2.0 tresnak:



TwinSpace: TwinBoard, materialak, foroa, TwinMail

Kanpoko 2.0 tresnak

- [Sway](#)
- [Adobe spark](#)
- [Crello](#)
- [mindmup](#)
- [popplet](#)
- [mindmeister](#)
- [kahoot](#)
- [quizziz](#)
- [learningapps](#)
- [flipgrid](#)